

onura sozialak 2



Zergatik da ona zure
seme-alabak kirola egitea?

- Gizarte zuzenagoa eraikitzen lagunduko diolako.
- Bera eta inguruko lagunak hobeto bizi daitezen lagunduko diolako.

Eskola Kirola

4

Izan ere, ariketa fisikoarekin zure seme alabak...

- **DROGAK errazago baztertuko ditu**, bere buruarekin pozik sentituko da eta gozatu egingo du. Bere burua zaintzeko jarrera garatu eta aisialdia ohitura osasuntsuekin beteko du. Lagunartean ibiliko da eta taldeko presioari aurre egiten ikasiko du. Osasuntsu eta pozik badago, ez du esperientzia berri arriskutsuen beharrik izango.




- **Portaera desegokiei bizkarra ematen lagunduko dio.** Kirolaren bitartez arauak errespetatzen, emaitzak onartzen, agresibitatea baretzen, autoestimua igotzen, aisialdia betetzen, lagunak egiten, protagonismo soziala izaten, ilusioa eta motibazioa bereganatzen ikasiko du. Horri esker, bizitzaz eta gizarteaz ikuspegi baikorragoa izango du.


- **Ikasketetan EMAITZAK hobetzen lagunduko dio**, lasaitu ondoren arreta handiagoa izaten delako, autokonfiantza garatuko duelako, esfortzuaren kultura barneratua izango duelako, gurasoekiko harremana hobetuko duelako, eskolako balioekin identifikatuko delako, oztopoen aurrean jarraitzeko kemena garatuko duelako eta denborari etekina ateratzen ikasiko duelako.



- Kirolari esker, **AISIALDIRAKO** ohitura egoki, **osasuntsu eta positiboak ikasi ditzake**. Zenbaitentzat denbora librea alferkeriarako eta portaera arriskutsuentzako aukera izan ohi da (drogak, delinkuentzia...). Aldi berean ludikoa eta hezitzailea den jarduera honi esker bere garapena eta heldutasuna sendotuko ditu. Gaztetan landu ez diren ohiturak nekez eskuratuko dira helduaroan.



- **Eskolatik kanpo eta lagunartean euskara erabiltzeko ohitura finkatzeko** bitarteko ezinhobea da Eskola Kirola, baina horretarako beharrezkoa da, Eskola Kiroleko taldeek entrenatzaile euskalduna izango dutela ziurtatzea.



Ondorioa:

Kirolari esker, zure seme-alaba gizartearen integratuago sentituko da, drogekin arazoak izateko aukera gutxiago izango ditu eta talde-giro jatorrean ibiltzeko aukera gehiago. Seguruenez, aisialdirako ohitura osasuntsuak eskuratuko ditu.

Gogoan izan:

Zure seme-alabak duen lagun taldeaz arduratuta bazaude, animatu ezazu kirola egitera, Eskola Kirola bereziki.

Beneficios sociales 2

¿Por qué es conveniente que tu hijo/a practique algún deporte o actividad física?

- Porque le ayudará a construir una sociedad más justa.
- Porque le ayudará a encontrarse mejor consigo mismo y en su entorno.

...YA QUE GRACIAS AL DEPORTE, TU HIJO O HIJA:

Prescindirá de las drogas con más facilidad.

- Se sentirá a gusto consigo mismo/a y disfrutará cada momento.
- Adoptará la actitud de cuidarse y llenar su tiempo libre con actividades saludables.

Dejará de lado comportamientos inadecuados.

- Aprenderá a respetar las reglas, a moderar su agresividad, mejorar su autoestima, llenar su tiempo libre y hacer amigos. Gracias a todo esto, tendrá una visión más positiva de la vida y la sociedad.

Le ayudará a mejorar su rendimiento escolar.

- Ya que al estar más relajado/a se logra un mayor nivel de concentración.
- Tendrá un mayor nivel de confianza en sí mismo/a y desarrollará la capacidad de hacer frente a las dificultades.

El deporte escolar es un medio muy adecuado para consolidar el uso del euskera en el entorno de amigos/as, fuera del contexto escolar, pero para ello es necesario que, en la medida de lo posible, nos aseguremos de que las personas que ejercen labores de entrenador/a conozcan y utilicen el euskera con nuestros escolares.

Recuerda:

Gracias a la práctica del deporte, tu hijo/a mejorará su socialización, tendrá menor probabilidad de tener contacto con las drogas, y desarrollará al mismo tiempo hábitos saludables para disfrutar del tiempo libre.

Si estás preocupado/a por las amistades que pueda tener tu hijo/a, anímale a practicar Deporte Escolar.

